

## Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

# Iparreko eta hegoko mugen mitoak. Zuzenbideaz eta eskubideez

# 19.

---

***Iparreko eta hegoko mugen mitoak.  
Zuzenbidez eta eskubidez***

**Iker—Barbero González**

## Zer da muga bat?

Beti bururatzten zaigu muga bat hesi edo langa bat dela, eta han agiriak eskatzen dizkigun polizia bat dagoela. Bere diskrezionalitateari jarraikiz, pasatzea merezi ote dugun edo ez erabakitzen du. Hori da muga bat, neurri batean. Nahiz eta hala ez dirudien, baliteke inoiz baino hesi, horma, langa, oholesi... gehiago egotea une historiko honetan. Dispositibo horiei erreparatzen diegunean, Ceuta eta Melillako hesiak datozkigu gogora segituan (hainbat afrikar igota daudela), edo Trumpen horma, AEB eta Latinoamerika bereizteko xedea duena (horma langile latinoek eraikita).

## Hain ongi ikusten ez diren hormak ere badaude, ezta?

Halaxe da. Esate baterako, Israelgo estatuak egin zuena Palestinako herria giltzapetzeko; Marokoren okupazioaren pean dagoen Mendebaldeko Saharako horma; Kaxmir eskualdean dagoena, India eta Pakistan artean; edo India eta Bangladesh artekoa; bi Korearen artekoa; Dominikar Errepublikaren eta Haitiren artean eraikitzen ari direna; edo Hegoafrikak altxatu duena Zimbabwe edo Mozambique aurrean. Eta ezin ahanzi dugu Mediterraneo bilakatzen ari den horma handia. Beste formazio natural ugariaren antzera (itsasoak, ibaiak, mendiak, basamortuak...), geografien arteko joan-etorriak eragozteko erabiltzen dira. Eraitza ehunka mila hildako dira haien ur eta hondarretan, baina. Azken batean, **horma horiek botere-harremanak agerian ipintzen dituzte: aberastasuna eta pobrezia; nor menderatzailea, nor menderatua.**

## Oztopo fisiko soilak al dira mugak?

Mugaren kontzeptua zabaldu egin behar dugu, dispositibo askok eta askok check point baten zeregin bera dutela ulertuko badugu. Izan ere, joan-eto-riak mugatu nahi dituzten antzeko botere-harremanek zeharkatuta daude, baita mugak nork zeharka ditzakeen hautatzeak ere. Mugatzat jo behar dugu mugen logika eta ondorio berberak aplikatzen dituen mekanismo fisiko edo psikologiko oro; adibidez, agirien kontrol bat gure hirietako kaleetan, edo atzerritarrak soilik sar daitezkeen atxiloteta/euste/konfinamendu-zentroak (formalak eta informalak), edo nazionalitatearen arabera pertsonak bereizten –eta mendean hartzen– dituen burokrazia izugarria, nazionalitatea dutenei ez baitizkie eskatzen atzerritarrei exijitzen zaizkien eskakizunak (eta nazionalitatea izanda ere, ezin diozu beti ihes egin larruazala ilunago baduzu, **Rosalind Williams**-i gertatu zitzaion bezala<sup>1</sup>). Horiek ere mugak dira, ikusezinak edo, batzuetan, zoliak (beste zenbaitetan, ez hainbeste). Azkenean, lerro bereizlea eta diskriminatzailea marrazten dute.

---

1. «El policía que me identificó dijo que tenía órdenes de buscar a personas con mi color de piel» [Identifikatu ninduen poliziak nire larruazal kolore bereko jendea bilatzeko agindu ziotela esan zuen], ElDiario.es, 2018ko abenduaren 15a

## Zein da munduko mugarik handiena?

Esan bezala, horma bat edo txarrantxa duen hesi bat datorkigu gogora, mugen iruditeria pizten zaigunean. Aipatu ditugun muga ugariren artean, mugetako obra handiena Ipar Amerikakoa dela otu dakiguke, beharbada. Baiki, obra faeoniko bat da, 3.000 km baino gehiago baitira. Ez da munduko mugarik handiena, ordea. **Munduko mugarik handiena Europakoa da, 44.000 km ditu-eta itsas mugetan, eta 9.000 km, lehorrekoetan.** Europako estatuen mugekin zedarritzen dira. Horri guztiari Europako herrialdeetan dauden nazioarteko milaka aireportuak gaineratu behar zaizkio, muga-lanak egiten baitituzte atzeritik airez sartzen direnekin (edo sartu nahi dutenekin). Europako Schengen araudiak ipintzen du erregulazioa. EBko ia estatu guztietan ez ezik, EBkoak ez diren beste batzuetan ere indarrean dago; adibidez, Islandian, Norvegian, eta Suitzan. Bestalde, EBk Frontexen esku utzi du kanpoko (zenbaitetan, haragoko) mugen kontrola. Frontex mugetako eta kostaldeetako guardien Europako agentzia da; langile gehienak (oraingoz) estatuetakoko poliziak dira, eta agentzia horrek koordinatzen dituen lanetan eta misioetan dihardute. Baina ez dezagun mugaren nozio zabala ahaztu, gero berreskuratuko dugu eta.

## Nork zeharkatzen ditu Europako mugak?

Iruditeria kolektiboari galdera hori egiten badiogu (izan kontuan hedabide alderdikoiek eraiki dutela iruditeria), gure gogoia Ceuta, Melilla edo Kanarietara joango da «mugak zeharkatu» entzuten dugun aldiro. Eta irudikatuko dugu Saharaz hegoaldeko Afrikako gizonak zeharkatzen dituztela; bortxaz, gainera. Lampedusara edo Lesbosera ere joaten zaigu gogoia. Han, subjektuak dibertsifikatzen hasten dira: Siriatik edo Afganistandik etorritako familiak daude, umeak eta guzti (non geratu zen *welcome refugees leloa?*). Ibilbideak aldatu egin dira, funtsean, EBk eta bertako estatuek zorrotz indartu dituztelako zaintza, deportazioa, edo zenbait herrialderekin abian duten lankidetzak (esate baterako, Maroko, Turkia, Tunez eta Libiarekin). Handik saiatzeko baitira migratzaileak mugak zeharkatzen, eta hantxe urratzen baitizkiete eskubideak, sarri-sarritan. Egjatan, **Mediterraneora (eta orain, berriro, Atlantikora) jo beharrean daude milaka lagun, gerra eta goseteetatik ihesean, eta beste zapalkuntza mikroago batzuetatik ihesean, sistema kapitalista eta heteropatriarkalaren ondorioz.**

ACNURen arabera, milioi bat baino gehiago heldu ziren 2015ean (eta 3.771 lagun hil edo desagertu ziren). Jendeak heltzen (eta hiltzen) jarraitzen du; beharbada, orduan baino hein txikiagoan (2019an, 123.663 heldu ziren, eta 1.319 lagun hil), baina saiatzeko jarraitzen dute. Eta legitimazioa, hel daitezen eragozteko (hesiak eraikiz edo irteten ez uzteko ordainduz), segurtasuna da. Oroitzen dut Melillako hotel bateko kafetegi batean gosaldia nuenekoak, Charlie Hebdo aldizkari satirikoaren aurkako atentatuak gertatu eta egun batzuen buruan (2015). Melillara bidalitako polizia inguratuta nengoen; haien egitekoa, mugako hesia zaintzea. Ondoko mahaian, atentatuari buruzko albistei begira, hau esan zion polizia batek bere nagusiari: «Ikusi, sarjentu, beste beltz batek ihes egin zigun». Modu horretan, eta unean bertan itzularaztea legeztatzen duten botere legegile eta judzialen laguntzarekin, nola, bada, ulertuko da **asiloa eskatzeko eskubidea merezi duten subjektuak direla?**

## Baina haiek osatzen al dute Europaranzko immigrazioaren gehiengoa?

**Ez.** Europaranzko immigrazioa pertsona horiek soilik osatzen dutelako mitoa ere eraitsi egin behar da. ACNURen arabera, 141.000 lagunek zeharkatu zuten Mediterraneoa 2018an. Eurostati jarraituz, aitzitik, **«EBtik kanpoko» 2,4 etor-kin sartu ziren bertako 27 herrialdeetakoren batera (batik bat, Alemaniatik; Mediterraneokoa ez den herrialde batetik, alegia).** Aipa ditzakegu, halaber, lurraldera urterik urte sartzen diren atzerriko ehunka milioi turistak, EBkoak edo bestelakoak; eta langile kualifikatuak zein goi-mailako exekutiboak, EBra bisa bereziekin sar daitezkeenak. Eta gorago esan bezala, sartzeko ate nagusia nazioarteko aireportuak izan dira, eta jarraitzen dute izaten. Hemerrotekatik tiraka, El Païsek polizia-iturriak aipatu zituen 1992an, eta, horien arabera, 153.000 latinoamerikar kontrolatu zituzten Barajasen (haien artean, 3.199 laguni ezezkoa eman zieten). Geroago, 1999 eta 2007 artean, era esponontzialean hazi zen Latinoamerikako herrialdeetatik etorritakoen kopurua. Emakumeak izan ziren, neurri handian. Langileak behar ziren, eta behar dira, etxeko lanetarako eta adinekoak zaintzeko. **Horrenbestez, jabetu behar dugu migrazioaren errealitatea oso konplexua eta anitza dela, eta paterak eta kaiukoak baino harago doazela kopuruak.** Hori bai, drama eta eskubideen urraketak Mediterraneo (eta Atlantiko) deritzon muga gertatzen dira, batez ere. Beraz, **Europako gortorlekuan apeta ren arabera zabaltzen eta ixten diren ateak daude, lan- eta ekonomia-merkatuak adierazten duen interesa zein den.** Hark erabakitzen du nor sartzen den, nola, eta zer eskubiderekin.

## Non dago mugarik gabeko Europa?

Schengen aipatzean, kanpoko (eta beste norbaiten esku utzitako) mugak indartzeaz mintzo gara. Teorian, ordea, hura sinatu zuten estatuen arteko muga-kontrolak kentzean zetzan. Bolada batean zehar, estatu kideen arteko mugetako dispositibo guztiak edo ia guztiak modu formalean kentzen aritu ziren agintariak. Hein handian, **horri ekin zioten zirkulazio askerako eskubidearen ondorioz, europar ametsaren inspiraziotzat hartu den/zen askatasun handienetako baten gisara mamitu baitzen.** Hala eta guztiz ere, azken bost urteotan, (EBko estatuen arteko) barne-mugak berriz jartzea izaten ari da ohi-koena, osorik eta modu iraunkorrean. Hori ondorioztatzen da Europako estatuek azken urteotan Batzordeari helarazitako eskaerak ikusita, mugetako kontrolak aldi baterako berrezarri nahian (luzapenak borborrean aritu dira), ustezko mehatxu terroristengatik, «bigarren mailako mugimenduengatik» (asiloa Alemanian, Belgikan edo Suedian bilatzen duten migratzaileak), eta, orain, COVID-19aren pandemiagatik. **Frantzian, adibidez, terrorismoaren aurkako legeria garatzen ari dira. Horri jarraikiz, lurralde osoa muga bilakatuko da, eta, hartara, poliziak kontrolatzeko eta itzularazteko eragiketak egin ditzake kanpoko muga ofizialetatik ehunka kilometrora.** Horrezaz gain, kontrol ugari beste era batzuetan egiten direla ohartu behar dugu. Nortasuna edo segurtasuna kontrolatzeko itxurak eginda, edo aduanan edo trafikoan berdin. Egiatan, berariaz egiten dituzte, arrazagatiko profiletatik abiatuta. Ez alferrik, hori da Europako erakundeen jarrera. Era horretan jokatzan dute itxurak gordetzeko, zirkulazio askeko proiektuak bere horretan diraelako plantak egiteko.



## Mugak al ditugu Euskal Herrian?

Begiratu batean, **ezetz esan genezake**, Mediterraneoetik urrun gaudela, Ceuta, Melilla eta Afrikatik urrun. **Alabaina**, aireportuak nazioarteko mugak direla eta barneko mugak berrezarri direla hausnartu ostean, **mugetako testuinguruei dagozkien gero eta errealitate gehiago daudela ikusten da**. Esate baterako, Irunen zain dauden pertsonak, Frantziara noiz zeharkatuko zain (Hendaiatik edo Pautik behin eta berriz itzularazi dituzte); edo asilo eske dabiltzanak, Turkiatik abiatutako hegaldietakoak, Bilbon eskala egiten; edo Santurtziko portuko kanpalekuak, Erresuma Batura doan ferryra igotzeko itxaronaldian (bide batez, Erresuma Batua Schengenetik kanpo dago, baina baita EBtik ere, orain). Bestalde, atzerritarren aferetan diharduten agenteek milaka lagun dituzte atxilo, nortasun kontroletan eta egonaldi irregularrengatik, neurri handian. **Hortaz, atzerritarrak mugetako ikuskizunetan murgilarazten dituzten egoera mordo dago, eta horien oinarrian dauden legeen ildo da nazionalitatearen arabera bereiztea** (zenbaitetan, baita itxura fenotipiko/etnikoaren arabera ere). **Horren helburua kontrola da, eta, hala dagokionean, zigortzea/atxilotzea/kanporatzea.**

## Zerbait egin al daiteke egoera horietan?

Oinarrizko eskubideak urratzeko arrisku handia dago egoera horietan. Hori dela eta, **zelatan diharduen gizarte zibila sendotu behar da** (herritarren segurtasunari buruzko legeak kriminalizatu gabe). Halaber, oharkabean igaro ohi den eta, hara non, EAEren eskumena den zerbitzu publiko bati aitortpena egin behar zaio: atzerritarren gaietan aritzen den abokatuen elkargoetako ofiziozko txandari. Asmatzen duten neurrian, eta konpromisoz, jendeari laguntzen diote, atzerritarrei begirako polizia-neurrien jomuga bihurtzen direnean. **Mugak gero eta poliedrikoagoak dira, eta ezin gara haietatik at egon.**

